



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 16a

71. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (14. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lodosako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lodosako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Lodosako Udalari buruzko fiskaliza-
zio txostena, 2006ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
 - III.1. Norainokoa (3. or.).
 - III.2. Mugak (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1 Udalaren eta bere erakunde autonomoa-ren kontu orokorra, 2006ko ekitaldikoa (4. or.).
 - IV.2 Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).

V. 2006ko kontu orokorraren laburpena (6. or.).

V.1. Lodosako Udala (6. or.).

V.2. Zahar-etxearen Patronatua (10. or.).

VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (11. or.).

VI.1 Aurrekontua prestatu eta onestea eta informazio finantzarioa. (11. or.).

VI.2 Antolaketa orokorra eta barne-kontrolako sistema (11. or.).

VI.3 Langileria. (11. or.).

VI.4 Administrazio-kontratazioa (11. or.).

VI.5 Inbentarioa-lbilgetua (12. or.).

VI.6 Hirigintza (12. or.).

VI.7 Erakunde autonomoa: Zahar-etxearen Patronatua (12. or.).

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, Lodosako Udalaren eta bere erakunde autonomo den Zahar-etxearen Patronatuaren 2006ko egoera-orri finantzarioaren fiskalizazioa egin du.

Lodosako Udalak 4.746 biztanle eta 45,8 kilometro koadroko hedadura ditu, eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2006-12-31n
Udala	4.886.979	5.198.045	39
Zahar-etxearen Patronatua	2.452,10	2.453,79	-

Zahar-etxearen kudeaketa zeharka egiten da, errentamendu bitartez.

Udala ondoko mankomunitate hauetako parte da:

– Elizagorri, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baitira etxez etxeko laguntza, oinarritzko gizarte-zerbitzua...

– Jurramendiko Mankomunitatea, zeinak ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendu-koak.

– Goi Erriberako kirol-mankomunitatea, xedeztat kirolaren sustapena duena.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.

- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua agertzen da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta mugak; eta, laugarrenean, kontu orokorri, legezketasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokorraren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egoki-

tzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lodosako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2006ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitatearen 2006ko ekitaldiko jardueran legedi aplikagarriak izandako betetze-maila.

c) Udalak 2006ko abenduaren 31n zeukan egoera finantzarioa.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Lodosako Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Bertan sartuta daude udalaren beraren kontua eta bere erakunde autonomoarena.

Nabarmentzekoa da Osoko Bilkurak ez zuela 2008ko maiatzaren 13ra arte onetsi 2006ko ekitaldiko kontu orokorra.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoaren diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen eta bere erakunde autonomoaren egoera-balantzea.

- Entitatearen eta bere erakunde autonomoaren galera eta irabazien kontua.

Udalak ez du aurkeztu:

- Finantziario atxikia duten gastuen egoera-orria.

- Udalaren eta bere erakunde autonomoaren egoera-orri finantzario bateratuak.

Udalak eta bere erakunde autonomoak aplikaturiko kontabilitate-araubidea da 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean ezarrita dagoena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoari dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolerako oinarritzko alderdiak.

Txostenean jasotzen dira udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

III.2. MUGAK

Udalak diruzaintza-gerakinaren egoera-orria aurkeztu du finantzaketa atxikia duten gastuetarako gerakinaren zehaztapena gehitu gabe, ez eta ukituriko baliabideen araberrako gerakinarena ere; horrenbestez, ezinezkoa zaigu egiaztatzea ea egokia izan ote den baliabide atxikien erabilera.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lodosako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukia ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

IV.1 UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTU OROKORRA, 2006ko EKITALDIKOA

- Ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dago; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoe-

ra-balantzeko ibilgetuaren 2006ko abenduaren 31ko saldoaren arrazoizotasuna.

- Udalak ez du egiten bere erakunde autonomoekin baterako egoera-orri finantzario bateraturik.

- “Zahar-etxea” patronatuak ez ditu bere balantzean jasotzen zahar-etxearen errentamenduari dagozkion zor ordaindu gabeak. Horien kobraketa 2007ko maiatzaren geroratu da.

Aurreko lerrokadan aipaturiko salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

- 2006ko ekitaldiko kontu orokorra, udalaren eta bere erakunde autonomoaren kontuek osatua, udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen, 2008ko maiatzaren 13an, Nafarroako toki osagunen foru legeak ezarritako epetik kanpo.

- Hirigintza-planeamenduaren alorrean, udalaren indardun dira 1995ean onetsitako arau subsidiario batzuk, eta ez du moldaketarik egin Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak ezarritako baldintzei egokitzeko. Hain zuzen ere, foru lege horrek hiru urteko epea ezartzen zuen arau horiek egokitzeko eta homologatzeko.

- Hirigintza-aprobetxamenduaren nahitaezko lagapena gauzatzegatik udalari AR-2 banaketa-eremuan zegokion orubearen orde, 114.382,80 euroko kopurua eman zaio ordainetan.

Eskudirutan ordeko ordaina emateko aukera salbuespenezko kasuetarako soilik jasotzen du Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Legeak. Kasu honetan, salbuespen-izaera hori ez da justifikatu.

- Udaletxeak ez dauka udalaren lurzoru-ondarearen erregistrarik, eta ez dauka erata, halaber, ondare hori udalaren gainerako ondasunetatik bereizirikoa eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak adierazitako xedeei loturikoa izatearen aipamenarekin.

Gure iritzi, eta aurreko lerrokadetan adierazitako salbuespenengatik izan ezik, Lodosako Uda-

laren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV. 3 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

2006ko ekitaldian, Lodosako Udalak 6,2 milioi euroko behin betiko aurrekontua dauka; 4,9 milioi euro gastatzen ditu, eta 5,2 milioi euro hartzen ditu (3,5 eta 3,7 milioi euro 2005ean, hurrenez hurren).

Aurreko urtearekiko gorakadak, gehienbat, egitako inbertsioen ondoriozkoak dira. Nagusiki, Kultur Etxean eginikoak: gastuetan 1,7 milioi euroko gehikuntza eragin dute, eta 1,2 milioi eurokoa dirusarreretan.

Inbertsio errealek egiten dute betetako gastu guztien ehuneko 53 (ehuneko 36, 2005ean), eta langileria-gastuek eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuek, ehuneko 41 (ehuneko 20 eta

ehuneko 21, hurrenez hurren; 2005ean, ehuneko 28 eta ehuneko 29).

Dirusarrerarik garrantzitsuenak transferentzietara dagozkie; kapitalekoek ehuneko 39 egiten dute, eta arruntek ehuneko 26 (hurrenez hurren, ehuneko 21 eta 39, 2005ean); horien atzetik, zuzeneko zergetatik heldutako dirusarrerak, zeinek ehuneko 17 egiten baitute (ehuneko 21, 2005ean).

Ekitaldia ixtean lortutako aurrekontu-erabakia superabita izan da, 311.067 eurokoa.

2006ko ekitaldiaren amaierako diruzaintzagerakina 1.435.167 eurokoa izan da.

Epe luzeko zorpetzea, 2006ko abenduaren 31n, 784.865 eurokoa da.

2006ko ekitaldia ixtean, Lodosako Udalak erakusten duen egoera finantzarioaren ezaugarri nagusia da zorpetze-maila ehuneko 4,20koa dela, eta bere zorpetze-muga ehuneko 24,71koa dela.

V. 2006ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**V.1. LODOSAKO UDALA***V.1.1 Udalaren aurrekontuaren betetze-egoera***Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa, guztira	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	729.300		729.300	867.771	119	744.730	123.041
2. Zeharkako zergak	200.000		200.000	298.898	149	296.538	2.360
3. Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	227.037		227.037	238.506	105	220.055	18.811
4. Transferentzia arruntak	1.368.700		1.368.700	1.368.594	100	1.308.995	50.319
5. Ondare dirusarrerak eta apro. kom.	118.209		118.209	101.271	86	61.498	39.773
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	88.600		88.600	250.505	283	250.505	-
7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa	2.075.922	116.000	2.191.922	2.035.345	93	830.421	1.204.924
8. Aktibo finantzarioak	-	-	-	-	-	-	-
9. Pasibo finantzarioak	1.239.490	50.000	1.289.490	37.154	3	37.154	-
Dirusarrerak, guztira	6.047.258	166.000	6.213.258	5.198.044	84	3.749.896	1.439.228

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.068.679	-	1.068.679	982.003	92	970.053	11.950
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.178.060	-	1.178.060	1.036.412	88	981.134	55.278
3. Finantza-gastuak	29.820	-	29.820	25.728	86	25.728	0
4. Transferentzia arruntak	191.050	-	191.050	146.064	76	137.007	9.057
6. Inbertsio errealak	3.370.024	166.000	3.536.024	2.601.775	74	1.685.631	916.144
7. Kapital-transferentziak	114.600	-	114.600	-	0	-	-
9. Pasibo finantzarioak	95.025	-	95.025	94.997	100	94.997	-
Gastuak, guztira	6.047.258	166.000	6.213.258	4.886.978	79	3.894.550	992.429

V.1.2 Aurrekontu-emaiza

Aitorturiko eskubideak (2006)	5.198.044
(Aitorturiko betebeharrak, 2006)	(4.886.978)
Aurrekontu-emaiza	311.067
(Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak)	-
Urteko finantzaketa-desbideraketa negatiboak	-
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-
BEHIN BETIKO AURREKONTU-EMAITZA	311.067

V.1.3 Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	Saldoa
Indarreko ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	1.439.228
Itxitako ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	223.516
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	11.765
Ordaintzen itzulketak	21.232
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(203.191)
Kobratzeko dauden eskubideak	1.492.550
Indarreko ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	992.429
Itxitako ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	17.100
Dirusarreren itzulketak	807
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-
Aurrekontuz kanpoko gastuak	206.751,68
Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.217.088
Diruzaintzako funts likidoak	1.159.705
Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	-
Diruzaintza-gerakina, orotara	1.435.167

V.1.4 Egoera-balantzea

AKTIBOA

Izena	2006	2005(*)	Aldea
1 - Ibilgetu materiala	4.715.504	3.151.122	1.564.382
2 - Ibilgetu ez-materiala	-	-	-
3 - Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.860.950	1.074.063	786.887
4 - Herri ondasunak	147.993	147.993	-
5 - Ibilgetu finantzarioa	360	360	-
A IBILGETUA	6.724.807	4.373.538	2.351.269
7 - Izakinak			
8 - Zordunak	1.695.742	686.101	1.009.641
9 - Kontu finantzarioak	1.366.611	1.432.559	(65.948)
10 - Egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak			
11 - Aplikatzeko dagoen emaitza			
C IBILKORRA	3.062.353	2.118.660	943.693
AKTIBOA, GUZTIRA	9.787.160	6.492.198	3.294.962

PASIBOA

Izena	2006	2005(*)	Aldea
1 - Ondare eta erreserbak	645.226	645.226	-
2 - Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	3.003.994	2.203.117	800.877
3 - Kapital-dirulaguntzak	4.486.725	2.565.762	1.920.963
A FUNTS BEREKIAK	8.135.945	5.414.105	2.721.840
4 - Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	434.127	491.969	(57.842)
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK (1)	434.127	491.969	(57.842)
5 - Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.139.261	586.124	553.137
6 - Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	77.827	-	77.827
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.217.088	586.124	630.964
PASIBOA, GUZTIRA	9.787.160	6.492.198	3.294.962

(*) 2005eko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

(1) Kontabilitate-sistemaren aldaketarekin, oker bat egin zen saldoak sartzean. 2006ko abenduaren 31n, zor bizia 784.865 eurokoa da. Puntu hori zuzendu egingen da 2007ko hasierako saldoetan.

V.1.5 Emaidza ekonomiko eta ondarekoa

Izena	2006	2005(*)	Aldea
61- Langile-gastuak	(987.878)	(973.319)	(14.559)
62- Finantza-gastuak	(25.728)	(20.562)	(5.166)
63- Zergak	(3.933)	(3.710)	(223)
64- Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	(1.026.603)	(998.205)	(28.398)
67- Transferentzia arruntak	(146.064)	(164.480)	18.416
GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA	(2.190.206)	(2.160.276)	(29.930)
70- Salmentak	106.371	103.943	2.428
71- Ondasunaren eta enpresaren errenta	223.895	224.619	(724)
72- Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	780.256	616.435	163.821
73- Errentaren eta ondarearen gaineko zerga amuntak	215.993	194.457	21.536
76- Transferentzia arruntak	1.368.594	1.466.326	(97.732)
77- Kapitalaren gaineko zergak	170.420	112.256	58.164
78- Bestelako dirusarrerak	123.893	42.730	81.163
DIRUSARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA	2.989.422	2.760.766	228.656
EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)	799.216	600.490	198.726
Bestelako abonu-arrazoiak	3.342	-	3.342
Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	(1.681)	(300)	(1.381)
ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)	800.877	600.190	200.687

(*) 2005eko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

V.2. ZAHAR-ETXEAREN PATRONATUA

V.2.1 Zahar-etxearen Patronatuaren aurrekontuaren betetze-egoera

Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa, guztira	Kobratzeko dagoena
4. Transferentzia amuntak	2.500	-	2.500	2.452,10	98,08	2.452,10	-
5. Ondare-dirusarrerak	-	-	-	1,69	-	1,69	-
Dirusarrerak, guztira	2.500	-	2.500	2.453,79	98,15	2.453,79	-

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
4. Transferentzia amuntak	2.500	-	2.500	2.452,10	98,08	-	2.452,10
Gastuak, guztira	2.500	-	2.500	2.452,10	98,08	-	2.452,10

V.2.2 Aurrekontu-emaizta

KONTZEPTUA	2005	2006
Aitorturiko eskubide garbiak	127.415,17	2.453,79
Aitorturiko betebeharrak garbiak	127.387,15	2.452,10
AURREKONTU EMAITZA	6.028,02	1,69

V.2.3 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

AKTIBOA		2006	2005
A	IBILGETUA	75.343,25	75.343,25
C	IBILKORRA	30.967,20	28.515,10
8	Zordunak	12.952,99	12.952,99
9	Kontu finantzarioak	14.410,60	11.956,81
11	Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galerak)	3.603,61	3.605,30
AKTIBOA, GUZTIRA		106.310,45	103.858,35
PASIBOA		2006	2005
A	FUNTS BEREKIAK	97.932,42	97.932,42
1	Ondare eta erreserbak	22.589,17	22.589,17
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0,00	0,00
3	Kapital-dirulaguntzak	75.343,25	75.343,25
H	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	0,00	0,00
D	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	8.378,08	5.925,98
PASIBOA, GUZTIRA		106.310,50	103.858,40

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1 AURREKONTUA PRESTATU ETA ONESTEA ETA INFORMAZIO FINANTZARIOA.

- *Aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa onestea legezko epeetan.*

- *Idazkaritzara eta Kontu-hartzaitzara igortzea aurrekontu orokorraren espedienteak, behar adinako denbora-aurreapenarekin, horri buruzko azterketa eta txostena egin ahal izateko, legez xedatuari jarraituz.*

- *Kontu orokorra onestea legez ezarritako epean.*

- *Halako prozedurak ezartzea non ahalbidetuko baitute finantziario atxikia duten gastuen eta baliabide atxikiaren kontrola eta jarraipena egitea.*

- *Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria prestatzea adieraziz zein diren finantziario atxikia duten gastuetarako baliabideak eta zein baliabide atxikiak.*

VI.2 ANTOLAKETA OROKORRA ETA BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

- *Azterlan bat egitea tasak edo prezio publikoak eskuratzea ahalbidetzen duten jardueren kostuei buruz, halako moduz non prezio publiko horiek zehaztuko baitira jarduera bakoitzaren kostuaren arabera.*

- *Gizarteko kolektibo ezberdinei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea.*

- *Diruzaintza eta kontu-hartzaitzako eginkizunak elkarrengandik bereiztea, ahal den heinean, halako moldez non ez diren pertsona berarengan bilduko.*

- *Kutxako diru-kontaktak egitean, horiek dokumentatzea. Kontaktak horiek ikuskatu eta sinatuko dituen pertsona ez da izanen kutxako eragiketarako egiten dituen bera. Horrenbestez bilatzen da eginkizun-bereizketa egokia bermatzea.*

- *Eskudiru-kutxa erabiltzea kopuru txikiak ordaindu eta kobratzeko soilik. Kutxa hori bertan behera uzteko ahalegina egin behar da.*

VI.3 LANGILERIA.

2006an, langileriaren gastuak 982.003 euro egiten du; hau da, aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 20.

Honela osaturik dago plantilla 2006ko abenduaren 31n:

Funtzionarioak	11
Langile finkoak	1
Aldi baterako lan kontratupekoak	27
Guztira	39

Ofizial administrari baten kontratazio-espediente berrikusi dugu, eta egokitzat jotzen dugu.

Hona gomendioak:

- *Aldi baterako langileen kopuru handia kontuan harturik, eman beharreko zerbitzuen arabera langileria-beharrizanak aztertzea, beharrizan horiek behin betiko plantillan jasotzea eta, plantilla zehaztu ondoren, lanpostu hutsak betetzeko behar diren deialdiak, kasua bada, egitea.*

- *Plantilla organikoa onestea legez ezarritako epeetan, eta lanpostu hutsen aurreikuspena ere zehaztea, kasua bada.*

VI.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan sartzen dira hala ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuei buruzko alderdiak nola inbertsioen analisiari buruzkoak.

Zerbitzuak kontratatzeke eta inbertsioetarako espediente hauek aztertu ditugu:

Kontratua	Prozedura	Lizitazioa	Esleipena
Udal eraikinen garbiketa	Irekia, prentsan iragami beharrekoa	57.304	52.130
Ramal kalea urbanizatzea	Lehiaketa	681.553	619.191
Kultur etxea	Lehiaketa	2.627.856	2.613.403

Horiek aztertuta, ondorioztatzen dugu kontratazio-espedienteak izapidetu direla legeak eskatzen duenari jarraikiz.

VI.5 INBENTARIOA-IBILGETUA

Hona gomendioak:

- *Ondasunen udal inbentarioa egitea.*
- *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatze-ko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideen araber.*
- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VI.6 HIRIGINTZA

Lodosako Udalarentzat gaur egun indarra duen araudia 1995ean onetsitako arau subsidiario batzuk dira.

- “Los Cabezos” izeneko A.R.-2 banaketa-eremuari dagokionez:

– Hirigintza-hitzarmen bat izapidetu zen, udalari dagokion ehuneko 10aren hirigintza-aprobetxamenduaren ordain ekonomikoa emateko, 114.382,80 euroko zenbatekoa egiten duen ordeko eskudirutan. Zenbateko hori udalak 2006rako zeukan aurrekontuan jasota eta kobratuta ageri da, kapital-transferentzia gisa (dirusarreretak 7. kapitulu).

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean, eskudiru bidezko ordezkapena aparteko kasuetarako soilik agertzen da jasota. Kasu honetan, salbuespen-izaera hori ez da justifikatu, eta udaleko idazkariak iruzkin hori bera egin zuen.

– 2006ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan, kapital-transferentzien gastuen kapitulu 114.000 euroko kopurua jasotzen da, “Los Cabezos industrialderako hirigintza-hitzarmena” kontzeptuan.

Transferentzia horri dagokionez, idazkariak jakinarazi du ez dela zuzenbidearen arabera hura ematea “Los Cabezos” industrialdea sustatzeko, ez baita udalaren betebeharrak eta, gainera, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak iritzi hori bera adierazten zuen txostena eman zuelako. 2006ko abenduaren 31n, gastu hori egin gabe zegoen eta, beraz, udalak ez du kopuru hori ordaindu.

A.R.-2 banaketa-eremu horren gainean udalak behin betikoz onetsitako aldaketa puntual bati dagokionez (dotazio-lursail bat sektorearen mutur bateraino eramatean zetzan), Nafarroako Gober-

nuak, aldaketa horri zegokion informazio tekniko jasotzean, zehaztu zuen ezen onesten diren planamendu-aldaketek, “egituratzaile” nahiz “xehakatu” deitzen zaiela ere, betiere hobetu behar dutela planifikatutakoa, eta aztergai harturiko aldaketari zegokionez, ez zela halakorik gertatzen.

- U.E. – 3 exekuzio-unitateari dagokionez

– Aurrekontuz kanpoko kontzeptu gisa kontabilizatu da, aurrekontu arruntari egotzi beharrean, 77.827 euroren kobraketa. Diru hori da, hain zuzen ere, udalari dagokion ehuneko hamarrek hirigintza-aprobetxamenduaren ordainezko diru-kopuruaren ordeko eskudirua. Hirigintzako kudeaketa-hitzarmen baten bitartez izapidetu zen.

Hona gomendioak:

- *Neurriak hartzea, udal plan orokorra Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen xedapenetara egokiturik onesteko.*

- *Aurrekontuan jaso bitez, 7 kapitulu, aprobetxamendu-lagapeneko betebeharrak betetzetik heldutako dirusarrerak, lagapen hori diru-ordainketa bidez egiten denean, eta haien erabileraren jarraipen egokia egin bedi, Lurzoruaren Udal Ondare-rako ezarritako ondorioetarako.*

- *Azal bedi zer arrazoi dauden, udalari dagokion hirigintza-aprobetxamendua lagatzeko betebeharraren ordeko diru-ordaina emateko, horrelako kasuak salbuespen gisa jasotzen baitira Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean.*

- *Lurzoruaren udal ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik.*

- *Lurzoruaren udal ondareko sarrera-irteerak erregistratu behar dira, bai lursailenak bai diruarenak, eta araudian ezarritako xedebetarako erabili direla frogatu behar da.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistro ofizial bat antolatzea, diligentzia, zenbakitua eta abar.*

VI.7 ERAKUNDE AUTONOMOA: ZAHAR-ETXEAREN PATRONATUA

Zahar-etxearen Patronatuak 2006ko ekitaldian gastu eta dirusarrera beretsuak agertzen ditu, zeinak ez baitira 2.500 eurokoak izatera iristen, eta 6.032 euroko diruzaintza-gerakina.

Zahar-etxearen kudeaketa egiten da 2004an kontrataturiko errentamendu baten bitartez.

2005ean, zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratuaren gaineko aldaketa bat sinatu zen, eta

urrats horren bitartez bideratu zen kontratistak errenta-ordainketa geroratzeko eginiko eskaerari emandako baietza.

Geroratzea, beranduenez ere, 2007ko maiatzaren 1era arte izanen zen, eta geroraturikoak ziren 2005eko hamar hilabeteren errentak, guztira 30.135,60 euroko zenbatekoa egiten zutenak, gehi 2006ko errenta guztiak, zenbatetsi gabe zeudenak eta KPla aplikatuz eguneratu behar zirenak.

Patronatuak ez ditu bere kontabilitatean erregistratu kobratzeke dauden zor horiek.

Hona gomendioak:

- *Patronatuaren gaineko kontrol- eta koordinazio-mekanismoak indartzea, halako moldez non*

eskubide ekonomiko bat edota betebeharrak sor dezakeen administrazio-egintza oro behar bezala jasota geratuko baita kontabilitateko egoera-orrietan.

- *Toki-erakunde autonomoa mantentzea komeni ote den aztertzea, berezko langilerik ez daukalako, eta bere jardueraren ardatza zahar-etxea delako, zeinaren kudeaketa errentan emana baita.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (14. or.).
- II. Helburua (15. or.).
- III. Norainokoa (15. or.).
- IV. Iritzia (16. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (16. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (16. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (16. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea. (16. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena (17. or.).
 - V.1. Dirusarrerak eta gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera (17. or.).
 - V.2. Aurrekontuko emaitzaren kalkulua (18. or.).
 - V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2005eko eta 2006ko abenduaren 31n (18. or.).
 - V.4. 2006ko ratioak (19. or.).
 - V.5. 2006ko eta 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantzea. (20. or.).
 - V.6. Galdu-irabazien kontua 2006ko eta 2005eko abenduaren 31n (21. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (22. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak, aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak (22. or.).
 - VI.2. Langileria (22. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak. (22. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (23. or.).
 - VI.5. Dirusarrerak (23. or.).
 - VI.6. Inbentarioa, ibilgetua (24. or.).
 - VI.7. Kontu finantzarioak (24. or.).
 - VI.8. Hirigintza (24. or.).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Atarrabiako Udalak 1,1 kilometro koadroko hedadura eta 10.295 biztanle ditu. Hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2006-12-31n
Udala	8.148.140,56	8.327.145,54	106

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

2006ko ekitaldian Atarrabiako Udalari aplikatzekoa izandako araubide juridikoa honako hau izan da, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua onesten duena.
- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Atarrabiako Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezko-tasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokorraren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloka.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, beraien lankidetzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru

Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Atarrabiako Udalaren 2006ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Atarrabiako Udalak 2006an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Atarrabiako Udalaren egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005eko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

– Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

– Entitatearen egoera-balantzea.

– Entitatearen galera eta irabazien kontua.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Atarrabiako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratzen. Hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu egoera-balantzeko "Ibilgetua" izeneko ataleko saldoaren arrazoizkotasuna. Saldo hori, 2006ko abenduaren 31n, 21.101.169 eurokoa da.

Aurreko lerrokadan aipaturikoaren ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egini-ko eragiketen emaitzak, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontua 9.577.848 eurokoa da, eta behin betikoa, 9.779.622 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 83koa da, eta dirusarrere-na, ehuneko 85koa.

2006ko ekitaldian transferentzia arruntek udalaren dirusarreraren ehuneko 44 egin dute, eta zergek eta tasek, ehuneko 48. Zuzeneko zergen betetze-maila ehuneko 133koa izan da, eta zeharkakoena, ehuneko 69koa, aurrekontuko aurreikuspena justifikatu zuten etxebizitzak ez bai-

tira eraiki. Bestalde, transferentzia arrunten ehuneko 98 bete da.

Ekitaldia ixtean lorturiko aurrekontu-emaitza doitua 253.000 eurokoa da; hots, aurreko ekitaldiko 793.347 euroak baino apalagoa. Horrek esan nahi du dirusarrerak hein horretan izan direla gastuak baino handiagoak, finantzaketa-desbiderape- nen doikuntzak egin ondoren.

Ekitaldi honetako zorpetzea 3.861.416 eurokoa da, aurreko ekitaldietan eginiko inbertsioetako ordainketari aurre egiteko. Bestalde, Nafarroako Gobernuak 600.000 euroko mailegu bat eman zuen 2006an, turismo-aterpetxe berria finantzatzeko. Mailegu hori 2007ko ekitaldian xedatu da.

Ekitaldia ixtean, udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 6,42ko zorpetze-maila, ehuneko 18,82ko zorpetze-muga eta gastu orokorretarako 1.462.978 euroko diruzaintza-ko gerakina.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

- Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen Udalaren Kirol Patronatua desegitea eta Udalaren Kirol Zerbitzua eratzea. Birmoldaketa horri buruzko hausnarketa egiteko gomendioa lehenagoko txosten batzuetan ere egina zeukan Comptos Ganberak.

Txosten honen VI. atalean berresten den beza-la, oraindik indarrean diraute honako gomendio muntadun hauek:

- Udalaren jabetzakoak diren ondasunen inbentarioa eguneratzea eta hura une oro gaurkotta eta kontabilitatearekin konektatuta egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.

- Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.

- Oroitidazkia egitea finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izate-aren ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jasotzea.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA**V.1. DIRUSARRERAK ETA GASTUAK, KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA**

Dirusarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Dirusarreren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betea, %	Kitatutakoa, guztira	Likidatua (%)	Kobratzeko dagoena
1 Zuzeneko zergak	2.027.886	0	2.027.886	2.699.409	133,11	2.316.278	85,81	383.131
2 Zeharkako zergak	360.000	0	360.000	247.521	68,76	224.340	90,63	23.181
Tasak, prezio publikoak eta beste								
3 dirusarrera batzuk	573.808	182.774	756.582	944.772	124,87	859.369	90,96	85.403
4 Transferentzia aruntak	3.774.120	10.000	3.784.120	3.698.708	97,74	3.395.914	91,81	302.794
5 Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	92.100	0	92.100	82.604	89,69	2.604	3,15	80.000
6 Inbertsio errealak besterentzea	250.000	0	250.000	0	0,00	0	0,00	0
7 Kapital-transferentziak	973.168	9.000	982.168	654.132	66,60	569.396	87,05	84.736
8 Aktibo finantzarioak	18.030	0	18.030	0	0,00	0	0,00	0
9 Pasibo finantzarioak	1.508.736	0	1.508.736	0	0,00	0	0,00	0
Dirusarrerak, guztira	9.577.848	201.774	9.779.622	8.327.146	85,15	7.367.900	88,48	959.245

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betea, %	Ordainketak	Likidatua (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langile-gastuak	4.089.059	17.712	4.106.771	4.000.762	97,42	3.946.158	98,64	54.604
Gastuak, ondasun aruntetan eta								
2 zerbitzuetan	1.804.104	32.380	1.836.484	1.840.457	100,22	1.589.147	86,35	251.309
3 Finantza-gastuak	175.320	0	175.320	138.588	79,05	136.490	98,49	2.098
4 Transferentzia aruntak	424.279	-7.000	417.279	387.494	92,86	344.527	88,91	42.966
6 Inbertsio errealak	2.699.997	158.682	2.858.679	1.426.949	49,92	1.212.791	84,99	214.159
8 Aktibo finantzarioak	18.030	0	18.030	0	0,00	0	-	0
9 Pasibo finantzarioak	367.060	0	367.060	353.891	96,41	353.891	100,00	0
Gastuak, guztira	9.577.848	201.774	9.779.622	8.148.141	83,32	7.583.005	93,06	565.136

V.2. AURREKONTUKO EMAITZAREN KALKULUA

Aurrekontu-emaiza

	2006	2005
Aitorturiko eskubideak	8.327.145,54	8.363.974,69
(Aitorturiko betebeharrak)	8.148.140,56	7.578.625,98
Aurrekontu-emaiza	179.004,98	785.348,71
(Finantzaketaren desbideraketa positiboak)	(12.960,48)	(41.500,00)
Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa	87.255,68	49.497,87
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak	0,00	
Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak	0,00	
AURREKONTUKO EMAITZA BEHIN BETIKOA	253.300,18	793.346,58

V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2005eko eta 2006ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2006	2005
Dirusarrerren aurrekontua: eguneko ekitaldia	959.245,26	1.044.807,02
Dirusarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	669.609,48	635.022,95
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	117.275,24	78.300,90
Ordainketen itzulketak	3.381,30	3.287,81
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(585.738,85)	(502.254,54)
(Aplikatzeko dauden dirusarrerak)	(71.425,08)	(62.094,04)
Kobratzeko dauden eskubideak	1.092.347,35	1.197.070,10
Gastuen aurrekontua: eguneko ekitaldia	565.135,99	796.641,75
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	109.299,69	46.673,40
Dirusarrerren itzulketak	0,00	0,00
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0,00	(26.394,10)
Aurrekontuz kanpoko gastuak	268.092,81	238.015,56
Ordaintzeko dauden betebeharrak.	942.528,49	1.054.936,61
Diruzaintzako funts likidoak	1.313.158,89	911.672,74
Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboa	0,00	49.497,87
Diruzaintza-gerakina, orotara	1.462.977,75	1.103.304,10

V.4. 2006ko RATIOAK

Adierazlea	2002	2003	2004	2005	2006
Dirusarreren betetze-maila	%87,20	%86,07	%90,49	%87,77	%85,15
Gastuen betetze-maila	%83,60	%84,03	%95,31	%82,75	%83,32
Kobrانتzen betetzea	%87,99	%86,28	%85,57	%87,51	%88,48
Ordainketen betetzea	%89,49	%91,63	%83,68	%89,49	%93,06
Zorpetze-maila	%4,78	%4,85	%5,65	%5,92	%6,42
Zorpetze-muga	%9,23	%10,40	%6,50	%10,43	%18,82
Zorpetze-ahalmena	%4,45	%5,55	%0,85	%4,51	%12,40
Aurrezpen garbia	%4,45	%5,55	%0,85	%4,51	%12,40
Langileriaren indizea	%53,36	%49,48	%41,32	%49,45	%49,10
Inbertsioaren indizea	%10,44	%16,97	%30,74	%17,13	%17,51
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	%34,28	%37,51	%49,89	%53,19	%52,27
Dirusarrerak biztanleko	605	717	840	817	809
Gastuak biztanleko	580	700	885	740	791
Dirusarrera aruntak biztanleko	543	615	618	643	745
Gastu aruntak biztanleko	503	560	587	587	618
Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	239	290	282	288	378
Finantza-zama biztanleko	26	30	35	38	48
Zorra biztanleko	261	291	339	412	375

V.5. 2006ko eta 2005eko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA.

AKTIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 Ibilgetu materiala	15.632.766,27	15.848.819,39	-216.053,12
2 Ibilgetu ez-materiala	846.483,21	744.767,62	101.715,59
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	4.618.874,15	3.436.497,91	1.182.376,24
Herri ondasunak	1.577,76	1.577,76	0,00
5 Finantza-ibilgetua	1.467,59	1.467,59	0,00
A) IBILGETUA	21.101.168,98	20.033.130,27	1.068.038,71
7. Izakinak	0,00	0,00	0,00
8. Zordunak	1.749.511,28	1.761.418,68	-11.907,40
9 Finantza-kontuak	1.313.161,05	938.069,00	375.092,05
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0,00	0,00	0,00
11. Aplikatzeko dagoen emaitza	0,00	0,00	0,00
K ZIRKULATZAILEA	3.062.672,33	2.699.487,68	363.184,65
AKTIBOA, GUZTIRA	24.163.841,31	22.732.617,95	1.431.223,36

PASIBOA

Izena	2006	2005	Aldea
1 Ondarea eta erreserbak	12.100.872,47	10.466.504,00	1.634.368,47
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.264.805,17	1.638.719,00	-373.913,83
3. Kapital-dirulaguntzak	5.922.795,13	5.268.664,00	654.131,13
A FUNTS BEREKIAK	19.288.472,77	17.373.887,00	1.914.586
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	3.861.414,97	4.215.306,00	-353.891,03
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	3.861.414,97	4.215.306,00	-353.891,03
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	942.528,49	1.081.331,00	-138.802,51
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak	71.425,08	62.094,00	9.331,08
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.013.953,57	1.143.425,00	-129.471,43
PASIBOA, GUZTIRA	24.163.841,31	22.732.618,00	1.431.223,31

V.6. GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2006ko eta 2005eko ABENDUAREN 31n

EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTEN KONTUA						
ZORRA		2006	2005	HARTZEKOA		
3	Hasierako izakinak	0,00	0,00	3	Amaierako izakinak	0,00
39	Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko homikuntza (ekitaldiko homikuntza)	0,00	0,00	39	Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko homikuntza (aurreko ekitaldiko homikuntza)	0,00
60	Erosketak	0,00	0,00	70	Salmentak	536.682,72
61	Langile-gastuak	4.002.617,19	3.748.835,16	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	410.122,00
62	Finantza-gastuak	138.588,27	112.705,06	72	Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuoak	1.647.124,85
63	Zergak	0,00	0,00	73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga aruntak	410.366,30
64	Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	1.838.601,09	1.554.847,76	75	Ustiapen-dirulaguntzak	0,00
65	Gizarte prestazioak	0,00	0,00	76	Transferentzia aruntak	3.698.708,07
66	Ustiapen-dirulaguntzak	0,00	0,00	77	Kapitalaren gaineko zergak	889.438,85
67	Transferentzia aruntak	387.493,73	587.386,71	78	Bestelako dirusarrerak	80.571,18
68	Kapital-transferentziak	0,00	0,00	79	Daukaten helbururako aplikaturiko homikuntzak	0,00
69	Amortizazio eta homiduretarako zuzkidura, ekitaldikoa	0,00	0,00	800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.305.713,69	844.562,48			
GUZTIRA		7.673.013,97	6.848.337,17	GUZTIRA		7.673.013,97

ITXITAKO AURREKONTUETAKO ESKUBIDE- ETA BETEBEHAR-ALDAKETEN KONTUA						
ZORRA		2006	2005	HARTZEKOA		
434	Deuseztaturiko eskubideengatik	26.153,08	26.982,70	431	Aitorturiko eskubideen saldoaren zuzenketengatik	-14.755,45
401	Aitorturiko betebeharen saldoaren zuzenketengatik	0,00	0,00	401	Preskribaturiko betebeharengatik	0,00
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharen aldaketa	0,00	224.233,83	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharen aldaketa	40.908,53
GUZTIRA		26.153,08	251.216,53	GUZTIRA		26.153,08

EKITALDIKO EMAITZA KONTUA						
ZORRA		2006	2005	HARTZEKOA		
80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0,00	0,00	80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.305.713,69
82	Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0,00	0,00	82	Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0,00
83	Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0,00	0,00	83	Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0,00
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharen aldaketa	40.908,53	0,00	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharen aldaketa	0,00
89	ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)	1.264.805,16	1.068.796,31	89	GALERA GARBIA, GUZTIRA (saldo zorduna)	0,00
GUZTIRA		1.305.713,69	1.068.796,31	GUZTIRA		1.305.713,69

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomen-dio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK, AURREKONTU-EN EGOERA-ORRIAK ETA ALDAKETAK

- *Aurrekontua eta plantilla organikoa onetsi behar dira ekitaldia hasi baino lehen.*

- *Aurrekontu-aldaketako espediente guztietan erantsi behar da kontu-hartzailetzaren nahitaezko txostena.*

- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira indarreko araudiaren arabera izapide hori aginduzkoa duten aurrekontu-aldaketak.*

- *Kreditu-sorkuntzak finantzatu behar dira tributuz bestelako izaerako dirusarreraren bitartez.*

- *Dirubilketa zaileko eskubideen kalkulua egitean, aurrekontuz kanpoko zordunak aintzat hartu behar dira, haien mugaegunari jaramon eginez.*

- *Gastuak eta dirusarrerak sortzapen-printzipioaren arabera kontabilizatu behar dira, eta aurrekontu-sailkapeneko kode egokiak erabiliz.*

- *Kontrolak ezarri behar dira, baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzeko modukoak.*

- *Oroitidazkia egin behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jaso behar da.*

VI.2. LANGILERIA

Langileria-gastuak 4 milioi eurokoak dira, eta horiek 2006ko aurrekontuko betebeharrak aitortuen guztizkoaren ehuneko 49 egiten dute. 2006ko abenduaren 31n, 106 langilekoa zen plantilla.

Kapitulu honetako gastua honela dago xehakatu:

Deskribapena	Aitortutakoa
Goi karguak	138.129,45
Funtzionarioak	580.934,62
Lan-kontratudunak	1.860.056,33
Bestelako langileak	103.644,50
Enplegu-emailearen kargurako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	1.317.996,78
Guztira	4.000.761,68

Eginiko lanean oinarriturik, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da udaleko plantilla organikoaren onespena.*

- *Nominen aplikazio informatiko berria berrikusi eta egokitu behar da, kontabilitate orokorreko programa automatikoki elikatze moduko laburpenak lortu ahal izateko.*

- *Langileria-espedienteetan jasota uztea aurre-eramandako hautaketa-prozesua.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK.

2006ko ekitaldian, kontzeptu horietan aitorturiko betebeharrak 1.840.457 eurokoak izan dira; hau da, aurrekontuan aitorturiko guztizkoaren ehuneko 23. Hona hemen xehakapena:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	10.743
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	235.421
Materiala, homidurak eta bestelakoak	1.571.605
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	1.856
Argitalpen gastuak	20.832
Guztira	1.840.457

Espediente hau aztertu da:

Kontratua	Esleipena
Hiri-garriketa	Zerbitzu-kudeaketa
	Lehiaketa irekia
	178.986

Aztertutako laginaren arabera eta orokorrean, hauxe gomendatzen dugu:

- *Aginduzko txosten juridiko eta kontu-hartzailetzakoak erantsi behar dira, bai eta esleipenen publikotasunaren justifikazioa ere.*

- *Esleipena jakinarazi izana espedientean jaso behar da.*

- *Behin betiko fidantza eratzeko legeko epea bete behar da.*

VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak, ekitaldi honetan zehar, 1.426.949 eurokoak izan dira. Udalaren guztizko gastuen ehuneko 18 egiten dute, eta ehuneko 50eko bete-tzea izan dute.

Kontusailik garrantzitsuena (haren betetzea, 2006ko ekitaldian, 1.030.130 eurokoa izan da) Kale Nagusiko zoladuraren obrari dagokio, zeinaren esleipen-espedientea 2005ean berrikusi baitzen.

Esleipen-espediente hau egiaztatu dugu:

“Lehiaketa publikoa, Atarrabiako Udaletxe Plazan lur azpiko automobil-aparkaleku bat eraiki eta bertako plazak saltzekoa, honakoen truke bidez: etorkizuneko gauza (lurpea) eta Udaletxe Plazaren gainaldearen birmoldaketa-lana”

Obraren burutze materialaren aurrekontuari buruzko estimazioa honakoa da:

Udaletxe Plaza birmoldatzea.	838.100
Lur azpiko aparkalekua eraikitzea	1.700.000
Estimaturiko oinarritzko aurrekontua	2.538.100

Espedientean ez dago kontratu-formalizazioaren edo behin betiko fidantzaren gordailatzearen

berririk, nahiz eta behin-behinekoa gordailatu egin zen.

Eginiko berrikuspenetik ondorioztatzen da espedientea behar bezala izapidetu dela, nahiz eta hobetzeko modukoak diren honako puntu hauek detektatu ditugun:

- *Aginduzko txosten juridiko eta kontu-hartzailetzakoak erantsi behar dira, bai eta esleipenen publikitatearen justifikazioa ere.*

- *Kasuan kasuko zuinketa-akta egin behar da.*

- *Esleipena jakinarazi izanaren berri espedientean jaso behar da.*

- *Kontratua formalizatu behar da.*

- *Behin betiko fidantza eratzeko legeko epea bete behar da.*

- *Kasuan kasuko jasotze-akta egin behar da.*

- *Truke bidezko besterentzearen berri eman behar zaio Foru Erkidegoko Administrazioari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko arauketa aintzat harturik.*

Bestalde, aurrekontuz kanpo erregistratu da 276.062 euroko kopurua, Kale Nagusian ur zikinen sarea berritzeko obrari dagokiona.

Obra hori Atarrabiako Udala ari da aurrera eramaten, Iruñerriko Mankomunitatearen kargura, nahiz eta jarduketa hori arautzen duen hitzarmena sinatzea oraindik ere eginkizun izan.

VI.5. DIRUSARRERAK

Udalaren dirusarreraren ehuneko 44 transferentzia arruntei dagokie, eta beste ehuneko 32, zuzeneko zergei.

Hona dirusarrerak, xehakaturik:

	Aitorturiko eskubideak
Zuzeneko zergak	2.699.409
Zeharkako zergak	247.521
Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	944.772
Transferentzia arruntak	3.698.708
Ondare-dirusarrerak	82.604
Kapital-transferentziak	654.132
Guztira	8.327.146

Zeharkako zergen ondoriozko dirusarrerak EIOZarenak dira. Dirusarrera horien likidazioa eraikuntza-jardueraren baitan dago, eta 2006an 247.521 eurokoak izan ziren, aurreko urtekoak 430.152 eurokoak izan baziren ere.

Tasen eta bestelako dirusarreraren kapituluan sartuta daude 137.839 euro, auto taxi lizentzien ondoriozko dirusarrerarenak. Dirusarrera horiek ez dira errepikiariak.

- *Ordenantzak behin betikoz onetsirik izatea haiek aplikatu beharreko aurrekontu-ekitaldiko lehen eguna baino lehen, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Legearekin bat.*

- *Bereziki irekitze-lizentzien kasuan, sistematikoki taxutu eta aplikatzea halako prozedurak non dirusarreraren kudeaketatik eratorritako datuak egiaztatzea eta kontabilitatean erregistraturikoekin eta dirubilletakoekin erkatzea ahalbidetuko baitute.*

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

- *Hiri-lurren balioa handitzeari buruzko zerga-kontzeptuak ahalik eta azkarren likidatzea.*

VI.6. INBENTARIOA, IBILGETUA

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

VI.7. KONTU FINANTZARIOAK

Udalak eskudiru-kutxako saldo gisa 569,91 euro erregistratu ditu, baina kopuru horren jarraipen egokirik egitearen inolako erakusgaririk ez dago.

- *Eskudiru-kutxaren jarraipen eta kontrol egokirako sistema bat ezarri behar da.*

- *Funtsen xedapena egin behar da sinadura mankomunatuaren bitartez.*

VI.8. HIRIGINTZA

Udalak 2004an erabaki zuen hirigintza-plan berri baten prestaketa agintzea, udal-planeamendu orokorren homologazioari buruz Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean jasotako xedapenak betetze aldera.

2005ean, udalak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 56. artikulua betez, Udal Plan Orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dago.

2007ko maiatzaren 21eko datarekin erregistratu zen udal plan orokor berriak udaletxean izandako sarrera, baina oraindik onetsi gabe dago.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko inbentariarik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala.

- *Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari egokitu beharra dago; horretarako, eta kasua bada, hirigintza-plan berria onetsi behar da, eta aintzat hartu behar dira Lurzoruaren Udal Ondarea eratzeari eta horren jarraipena egiteari buruzko jarraibideak.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde